

Ebazpena: R46/2022

Espedientea: 15/2013

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera JKIRen zerga-helbidea zuzentzeari dagokionez, Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dena, 15/2013 espedientezenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- JKIR 2006ko ekitaldian ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 274100 epigrafean alta emanda zegoen pertsona fisikoa da (ekonomisten lanbide-jarduera), Bilbon.

2.- JKIRek 2006ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu zuen ZAEAn, eta ekitaldi bereko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hiruhileko aitortpenak, baita azken hiruhilekoko eta urteko laburpena ere, BFAn.

3.- 2010eko abuztuaren 26an, ZAEAk BFari eskatu zion JKIREk 2006ko ekitaldiko BEZagatik BFAn sartutako zenbatekoak itzultzeko, ekitaldi horretan egoitza lurralde erkidean zuelako, zehazki, Laredon (Kantabria).

4.- 2013ko apirilaren 25ean, BFAk JKIREn helbidea Bilboko H kalera aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI. Aldaketak 2006ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango zituen.

5.- 2013ko maiatzaren 30ean, ZAEAk BFari jakinarazi zion proposatutako egoitza-aldaketa ez zela bidezkoa.

6.- 2013ko ekainaren 27an, BFAk gatazka aurkeztu zion Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

7.- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek *zergadunen helbideratzeari buruz sor daitezkeen desadostasunak ebazteko eginkizuna* esleitzen dio.

2. - Amore ematea

Pertsona interesdunik eta, bereziki, zergapekorik aurkeztu ez denez, ZAEAREN amore emateak, BFAK helbide-aldaketari buruz egindako proposamena onartuz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAK amore eman baitu BFAK helbidea aldatzeko egindako proposamenean, hau da, JKIREN helbidea Bilboko H kalea da, 2006ko urtarrilaren 1etik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta JKIR jaunari jakinaraztea.